

# **OÑATIKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA**

## **SARRERA**

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Azkoitiako lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

## **XEDEA**

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

- 1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:
  - **Oñatiko hiri antolamenduko arauen aldaketa, II.14 Urrutxu Hean teknologi berrikuntzarako alorra sortzeko. Behin betiko onespina etenda uzteko erabakiaren aurkako errekurtsioa (2004ko irailaren 28an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartua).**
  - **Oñatiko hiri antolamenduko arau subsidiarioak behin betiko onestea. (2005eko apirilaren 12an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartua).**

## ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- Hiri-lurraren mugapena aldatzen da.
- 2.- 015, 017, 018, 202, 302, 311, 601, 804, 809 eta 811 zona katastralen mugak aldatzen dira.
- 3.- Honako zona hauek sortzen dira: 412, 413, 414, 602 eta 603 etxebizitzarako zonak eta, 854 eta 855 zona industrialak.
- 4.- Sortutako zonek honako balioak izango dituzte:

**Zona Hirigintz. klasif (EK)Eraik Kos. (BEE)Balio Erag. (MP)Apark Moduloa.**

412	HIRILUR	510,86 €	369,65 €	13.823,28 €
413	HIRILUR	510,86 €	332,96 €	11.419,23 €
414	HIRILUR	510,86 €	217,35 €	9.616,19 €
602	HIRITARGARRIA	510,86 €	332,96 €	11.419,23 €
603	HIRITARGARRIA	510,86 €	386,15 €	11.419,23 €

**Zona Hirigintz. klasif (BEI)Balio Erag (MP) Apark Moduloa**

854	HIRITARGARRIA	225,38 €	6.010,12 €
855	HIRITARGARRIA	225,38 €	6.010,12 €

5.- Honako etxebizitzarako zonetan dauden kaleek edo kale tarteez azaltzen diren azpizonak izango dituzte:

<u>Azpizona</u>	<u>Zonak</u>
R	412
V	413, 414
U	602, 603

## **I. ERANSKINA**

**Hirilurraren mugatze plano.**

## **II. ERANSKINA**

**Zona katastralen plano.**